

Gasteizen, 2023ko azaroaren 20an.

Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkide agurgarria:

Hezkuntza sistema funtsezko elementua da gutxitutako hizkuntza baten normalizazio prozesuan: transmisioa bermatzeko bidea da, belaunaldi berriei euskara ematekoa. Euskararen normalizazio prozesua, berriz, ezinbesteko osagaia da milaka herritarren hizkuntza-eskubideak aintzat hartu eta errespetatzen hasteaz gain, gizarte kohesioa, justizia soziala eta elkarbizitza indartzeko. Euskararen normalizazioan egiten den urrats bakoitza urrats bat da demokrazian sakontzeko. Horrenbestez, hezkuntza sistemari dagokion eginkizunetako bat da ikasleei bermatzea euskara ezagutzeko, euskaraz jabetzeko, eskubidea.

Azken hamarkadotan urratsak egin dira euskararen normalizazioan, eta hezkuntza komunitatea izan da horien zutoin nagusietako bat. Baina oraindik ere euskarak egoera gutxituan jarraitzen du, eta beraz, berdintasuna helburu, euskarak neurri proaktiboak behar ditu, ezin arau daiteke bi hizkuntzak maila berean baleude gisa. Hori guztia aintzat harturik, Legebiltzar honek berak 2021eko urriaren 14ko osoko bilkuran Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Hezkuntza Legearen berrikuntza abiatzea erabaki zuenetik, Euskalgintzaren Kontseiluak –euskararen normalizazioaren aldeko eragile nagusiak biltzen dituen erakundeak– hurbiletik eta arreta bereziz segitu du lege berria eratzeko prozesua. Ez bakarrik hurbiletik eta arretaz, baizik eta euskararen normalizazioan aurrera egingo bada, eta oraindik eta garrantzitsuagoa dena, hezkuntza sistemak ikasleei euskaraz jabetzeko eskubidea bermatuko badie, lege horrek jaso beharko lukeena aztertuz eta proposatuz.

Azterketa eta proposamen horiek Kontseiluak ez ditu bakarrik egin, baizik eta hezkuntza arloko adituekin, hezkuntza komunitateko kideekin eta arloko gainerako eragileekin elkarlanean. Lanketa horren emaitza da Kontseiluak mahai gainean jarritako proposamena, eta proposamen horrek modu zehatz eta garbian jasotzen du zein izan behar duen etorkizuneko hezkuntza-sistemaren hizkuntza eredua, baldin eta normalizazioan aurrera egingo bada: *euskara, berezko hizkuntza, hezkuntza sisteman irakats hizkuntza normalizatua izango da, eta jardueretan erabilera normal eta orokorreko hizkuntza izango da; are gehiago, hizkuntza-eredu orokor eta inklusiboa izango da eta ez ditu ikasleak banatuko hizkuntza-ofizialen arteko aukeraketaren arabera*. Laburbilduz, euskara ardatz duen eredu orokortu eta inklusiboa da Kontseiluaren proposamena; baina Kontseiluarena ez ezik, baita hezkuntza komunitateko eragile nagusia –Ikastolen Elkartea, EHIGE, HEIZE, HikHasi– eta gehiengo sindikalarena –ELA, LAB eta STEILAS–.

Baina euskarak hezkuntza sistemako hizkuntza normalizatua izateaz gain, euskara ezagutu gabe sartzen diren ikasleei arreta berezia eskaini beharko zaie, eta hizkuntza-proiektuak errealitate soziolinguistikora egokitzeke irizpide orokorrak ezarri beharko ditu legeak berak. Beti ere euskara gutxiago duenari gehiago ematea oinarri harturik, eta ikasle guztiei euskara ezagutzeko eta euskaraz jabetzeko eskubidea bermatzea xede.

**Martin Ugalde Kultur Parkea. 20140 Andoain (Gipuzkoa) Tfnoa: 943 59 12 00 e-posta: [kontseilua@kontseilua.eus](mailto:kontseilua@kontseilua.eus)**

Marcelo Zelaieta etorbidea, 75  
U3 eraikina, 13. bulegoa  
31014 Iruñea (Nafarroa)

38, Cordelier karrika  
64100 Baiona (Lapurdi)

Panama kalea, z.g. Rogelia de  
Alvaro Elkartearen Etxea A.I.I.  
01012 Gasteiz (Araba)

Ubela industrialdea, 8  
31780 Bera (Nafarroa)

Luzarra, 10  
48014 Deustu (Bizkaia)

Eta, jakina, ez dago hizkuntza ulertzerik horri lotzen zaion kultura alboratuta. Kultura ere eskubidea da, eta kalitatezko hezkuntzaren bidean, ezinbestekoa da euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatzea, gizarte-kohesiorako elementua baita.

Arestian esan bezala, proposamen eta eskari hauek ez ditu Kontseiluak bere kasara eta bakarrik egin. Aitzitik, hezkuntza komunitateko eragile nagusiekin egin du lanketa. Are, beste urrats bat ere eman du azken asteotan: irailaren 12an sinadura bilketa abiatu zuen 'Hezkuntzak euskara gehiago behar du' lelopean, aipatutako eragile eta sindikatuen babesarekin. Sinadura bilketa horren xedea Eusko Legebiltzarreko kideei Hezkuntza Lege berriak hiru puntu hauek berariaz jasotzeko eskatzea da:

1. Euskara ikas- eta irakats-hizkuntza izango duen eredu orokortu inklusiboa.
2. Euskal kultura ardatz izango duen euskal curriculum.
3. Hezkuntza ez-arautua osorik euskaraz garatzea.

Laburbilduz, egungo testuinguruan eta egungo premiei erantzunez euskararen normalizazioan, – eta, horrenbestez, gizarte kohezioan eta bizikidetzan– sakontzea ekarriko duen lege baterako osagaiak jasotzea.

Hogei milatik gora herritarrek sinatu dute eskaria –gehienak hezkuntza komunitateko kideak–, eta milaka lagun horien babesak ematen duen indarrak dakar gaur, 2023ko azaroaren 20an, Eusko Legebiltzarreko Kontseiluak aipatutako oinarriak Hezkuntza Lege berrian jaso daitezkeen eskaria, legebiltzakide guztiei zuzendua. Euskararen normalizazioan atzerapausoak saihestu, eta, aitzitik, legedi berria aurrerapauso izan dadin.



**Idurre Eskisabel Larrañaga**  
*Eusko Legebiltzarreko Kontseiluko idazkari nagusia*

**Martin Ugalde Kultur Parkea. 20140 Andoain (Gipuzkoa) Tfnoa: 943 59 12 00 e-posta: [kontseilua@kontseilua.eus](mailto:kontseilua@kontseilua.eus)**

Marcelo Zelaieta etorbidea, 75  
U3 eraikina, 13. bulegoa  
31014 Iruñea (Nafarroa)

38, Cordelier karrika  
64100 Baiona (Lapurdi)

Panama kalea, z.g. Rogelia de  
Alvaro Elkartearen Etxea A.I.I.  
01012 Gasteiz (Araba)

Ubela industrialdea, 8  
31780 Bera (Nafarroa)

Luzarra, 10  
48014 Deustu (Bizkaia)